MUSIKA KIOSKOA — BOULEVARD ZUMARDIA ZG

C MAILA



Ricardo Magdalena, 1906.

Deskribapena

Boulevarda eraberritu ondoren berreraikitako musika kiosko modernista. Erdian zuen posiziotik lorategien eremuko mendebaldeko ertzera mugitu zuten berregiteko; bere jatorrizko orientabidea 90º biratu zuten. Bere oinplano eliptikoa, burdinurtuko zutabeak eta Maumejean etxeko beirateak eraikin honen osagai azpimarragarrienak izan ziren. Elipsoide moztu baten gisa xaflan egindako estalkia eta bere hegal handia, bolumen handiko elementuak izaten jarraitzen dute Boulevardean. Ricardo Magdalena arkitekto aragoiarrak proiektatua, jada bazegoen eraikinaren 7.30 x 11.80ko oinplano eliptikoaren oinarrira egokitu behar zen kioskoa. Halaber, burdinez eta kristalez eraiki behar zen, eta estalkia, berriz, zurez eta zinkez egin behar zen, oihartzun handiko sabaiarekin. Hasieran kioskoaren lurzorua egurrezkoa zen, baina 1920an Juan R. Alday arkitektoak azpioinarrian ipinitako hormigoizko egitura baten gainean mosaiko zola ezarri zuen.

Babes erregimena.

1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

2.- Berariazko babes erregimena.
- A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: beirateak, forjaketa elementuak.
- C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ezin da handitu edo aldaketarik egin.
- D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.